

egunekoa

Marine Pueio eta Xanti Kiroga

(Nafarroako Legebiltzarreko parlamentariak)

Zorionak, alkateak!

Zorionak! Zorionik beroenak eman nahi dizkiegu Nafarroako hainbat alkateri: jarrera intsumisoarekin, Nafarroaren nortasunaren eta haren zenbait adierazpenen aurkako etengabeko erasoei kontra egitea erabaki dutenei. Beste batzuek ere beste horrenbeste egingo ahal dute! Eta ea arrakasta handia duen Leitzan sortu eta gure nortasunaren defentsan oraindik badi-rauen ekimenak! Gernika deialdiak, esaterako, larunbaterako, hilak 25, elkarretartzera deitu du, eta lerroon bidez gure atxikimendua erakutsi nahi diogu.

Gu, tamalez, urrun egongo gara. Nafarroaren eta Euskal Herriaren ordezkari-tzaren parte izango gara Porto Alegren globalizazioaren aurka egingo den Munduko Foroan. Ezkerrak laguntza falta handia izan badu ere, orain beharrezkoa duen indarra eta beste herri eredu batzuk aurkitzen ari da. Horiekin aurre egingo dio George J. Bush buru duen alde bakarreko ordenak eta haren gerra interesek mundu osoan inposatu nahi duten prozesuari: prozesu uniformizatzaile, akulturatzaile eta ekonomizistari. Gauza ugariaren inguruan egin behar dugu gogoeta: Europa ofizialak eta hango agintariek hartu duten rol tristearren inguruan eta haien lekuan lekuko agindupekoek hartu duten oraindik ere rol penagarriagoaren inguruan.

Honakoa da globalizazioaren aurkako zutarrietako bat: orokorrean pentsatu, eta tokian aritu. Beste mundu bat izatea posible bada, beste Nafarroa bat izatea ere posible izango da. «Has gaitzen lanean», pentsatu dutela dirudi aurreneko zinegotziek. Esan izan dutenez, Nafarroan gorabehera historikoak izan dira *mo-ketazko* Nafarroa ofizialaren eta kalean bizirik dagoenaren artean. Gizarteko ehun aberatsa eta instituzioen irudi grisa ez datoz bat; ezta horiek estaltzeko bildukietan milioi ugari inbertituta ere

—bilduki erdia *XXI. mendeko beira*, eta beste erdia *XIX. mendeko Espainiako justizia adreilu*—. Aurre egitea eta konplexuak alde batera uztea beharrezkoa da.

Horregatik jaso dugu haize bolada fresko baten parean udaletxeetan hartu duten jarrera matxino hori; erakundeen alorra jauntxoena eta klientelista izaten baita askotan. Egia da zerrenda pasatuz gero argi ikusten dela intsumisiora deitu duten herriek badakitela nola jokatzeko ez dutenak. Agian, horregatik esan dute laster batean batzuek: «Desagertutako Batasuneko alkateak dira horiek!». Gустura geundeko, bai, «desagertutako Batasunak», EHk edo HBk noizbait 23 alkatetza izan balitu Nafarroa Garaian!

Idazkian adierazten dutenez, hitzen edertasunak gertakizunen eraginkortasuna izan behar omen du lagun. Horregatik hartu dituzte konpromiso zehatzak sinboloen lege berriaren eta euskararen aurkako foru dekretu berriaren inguruan. Ados gaude erabat. Baina hitzen edertasunari buruz diotenaren gainean badugu azpimarratzekorik.

Nafarroako gizartearen *bioaniztasuna* miresmenez aipatzea adierazgarria iruditzen zaigu. Aipamen horiek gizaki, geografia eta askotariko kultura talde baten adierazpenak dira. Gizarte hori etenik gabe eraikitzen ari da; eta gure aurrekoek beste lurralde eta garai batzuetan egiten zuten bezalaxe, herrialde horretara iristen direnen ekarpenak jasotzeko prest egon behar du —hirugarren milurteko honetan jaiotakoak edo bizitzako gorabeherak beste lurralde batzuetatik ekarritakoak—.

Nafarroaren ikuspegi hori itxaropentsua da; izan ere, denborari, espazioari eta garrantzi politikoari begira, Espainiako Autonomia Erkidegoa aise gainditzen du. Hura 1982ko LORAFNarekin konformatu zen. Nafarroako Foru Erkidego-

aren muga ofizialetatik haratago doan giza taldearen ardatza berriz ere Nafarroa izateak nabarmentzen du atarian eginiko interpretazio historikoa zeharkakoa dela. Nafarroako errege Antso VI.a Jakitunak euskarari *lingua navarrorum* deitu zion, XII. mendeko *hizkuntza jasoa* erabiliz. Hori ez da soilik *desabantaila historikoa* Nafarroako ustekabeko elementu gisa ikusten dutenentzat —edo Nafarroatik kanpoko elementu gisa—; gure kultura ondare zaharraren zati delako frogatzen eztabaidatuzkoa da.

Era berean, hizkuntza hori lurraldean hedatzeak —ez XII. mendean, baizik eta XXI. mende hasieran; eta ez ofizialtasunari begira, erabilerari begira baizik— grafikoki adierazten du *euskararen herriari* jarri zaizkion barne mugen artifizialtasuna; egun, gainera, gainditu ezin direla uste dute. Anekdotak gisa, ez dago soberran gogoratzea, merindadeei begira, euskal hitzun kopururik handiena ez dagoela 82 eta 86an inposatutako inongo azpiataletan. Gaztelako ordezkariak 1515. urtean nafar izaera kendu zieten merindadeak du kopururik handiena —Nafarroa Beherea—.

Tabuak hausten hasi garenez, eta hoberikuntzak izan diren arren, ezin da honakoa ezkutatu: garaiko nazioarteko ituntan independente jokatzeko zuten Europako estatu subirano gisa, Nafarroako erreinua ez zen bukatu XVI. mendean. Gaztelari ustez *equae principalis* batu zitzaionean; XVII. mendeak aurrera egin da ere segitzen zuten. Hain zuzen, Batasunaren Ediktua izenekoaren bidez 1620an Nafarroako azken erregea Frantziako errege ere bihurtu zen arte iraun zuten. Erdi Arotik gaur egun arte, zenbaitzuek Nafarroako politikari berezko izaera kendu nahi izan diote, eta, horretarako, ez dituzte jendearen eskura jarri nahi izan ares-

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

zutabea

Bixente Serrano Izko



Puritanismoa

Ez dugu zertan sinetsi behar lege batek determinatzen duela historia, baina bai aurki ditzakegula zenbait epe, berez ezberdin baina gizarte edo kultura edo aginte mailako hainbat ezaugarri berdintsukoak, non irtenbide —edo hanka sartze— parekotoak bilatu diren. Hori horrela, epe historiko puritanoek hitz egin dezakegu, kasurako. Puritanismoak kutsaturiko egoerak erasokorrenak izan ohi dira historikoki. Erasokorrenak, nor bere buruaren kontra —puritanismoari dagokion halako asketismoak eskatuko lukeen bezala—, baina baita hurko eta urrunekoaren kontra ere. Lerroz lerro hitz-jartzaile honek baino askoz hobe azalduko luke psikologo batek, baina nago zerikusirik izanen duela autoerrepresioak bertzeak zigortzeko joera grina-tsua erekin. Baina zentzu positiboan, mesedez, ulertuta: Freudek sublimazioaz hitz egin zuenean ere, gizakion senen erreprimiteak geure energiak bertze balore altuetan erabiltzera eramaten gaituela adierazi nahi zuen; eta zer balore altuagorik hurkoen eta urrunekoaren salbamenerako jarduera eta ekintzetakoak baino, Lutherrek zerura eramateko zioaz alemaniar nekazarien aurkako sarraskiak justifikatu zitueneko harako haiek argibide? Hortaz, susmoa dut, epe historiko puritanoen gerrazaletasuna.

Horrelako batean gaude gaur. Barregarri da, Bushen itxura-aholkulari ohi batek deskribatu berri duenaren arabera, AEBko gobernukoak irudikatzea Bibliaren irakurketari ekiten eguneroko hainbatetan, sutsu eta gartsu, txostenik teknikoanetan murgilduko balira bezala. Barregarri da munduko agintaririk boteretsuena jo eta ke *footing* edo gimnasioan imajinatzea, ez preseski soldadu balent bihurtzeko, alkoholaren bekatuari uzteko baizik. Bushen puritanismoaren barregarritasun geldiezina, negargarri bilakatzeraino.

Zaila duzue, giro honetan, Saddamen eta Bushen Irakeko biztanle erregai horiek, bizizaleok, hedonistok, ekologistok, zorientasun, askatasun eta bakearen mistikook, solidariook, patriarken kontrako emakumeok, egien esatariak omen zaren ero, mozkor eta haurrok, lorezainok (hilerrietakoak izan ezik), eguneroko barauari utziko badiozue bueltaka nondik hartzeko zer ibili behar duzuenok..., nola-halako bekatari (terrorista) guztiok azken beltzean. Puritanismoak agindu, asketismoak zigortu eta gerrak salbatuko bide gaitu denok.

seiko urrea

Julen Zabalo



Hirugarren Munduko egoerak Lehenengoan

Orain aste batzuk sute bat piztu zen Malagako komisaria batean, eta haren ondorioz, oraingo, zazpi etorkin hil dira. Gai horren harira, Andaluzian etorkinen eskubideen alde ari den talde batek gertaera horri zein garrantzi txikia eman zaion salatzen zuen, eta sutea Hirugarren Munduko herriaren batean jazo izan balitz, iritzi gehiago agertuko zatekeela Hirugarren Munduko komisarien egoera txarra

salatuz eta abar. Arrazoi osoa du, nire ustez, Andaluziako talde horrek. Izan ere, mendebaldeko ikuspegi kamutsak parekatu egin ditu Lehenengo Mundua ontasun eta perfekzioarekin, eta Hirugarren Mundua zabarkeriarekin eta ezina da eskema hori itzurtzea: Hirugarren Munduan zerbait nabarmengarri ikusiz gero, arlo horretan duten *aurrerapen* maila txalotzen dugu, maila hori ez baitagokio halako herri bati; eta Lehenen-

go Munduan zerbait gaitzesgarri eginez gero, alor horretako *Hirugarren Munduko egoera* salatzen dugu, Lehenengo Munduan, printzipioz, ezina baita akatsik egitea. Ikuspegi eurozentriko hori bizitzaren eremu guztietara heltzen da, eta jende mota guztiak kutsatzen ditu. Gure artean, zerbitzu oker bat aurkitzen dugunean, Euskal Herrian *zerbitzu* horretan dagoen *Hirugarren Munduko egoera* salatzen dugu, Euskal Herrian, berez, halakorik eskaintzea ezina balitz bezala.

Bada, kontu horretan, behin eta berriro agertzen den adibide argi eta lazgarri bat. Euskal preso politikoei tortura salaketak egiten dituztenean, Raxoik edo Imazek arrazoi berbera argudiatzen dute salaketak ukatzeko: Espainiako Polizia edo Guardia Zibila, kasu batean, eta Ertzaintza, bestean, poli-

zia demokratikoak dira. Besterik ez. Mundu guztiak ulertu behar du, beraz, demokrazian torturarik ez dagoela. Ez lege ezin dela torturatu eta zigortuta dagoela, baizik eta ez dagoela, Lehenengo Munduko demokrazia batean zuzen jokatzeko baitu, hurrean, mundu guztiak. Argentinan, Aljerian edo Turkian gerta daitezke halakoak, demokraziak ere izan arren, baina herri horietan... badakigu!

Euskal presoei, hortaz, ez dagokie torturatuak izatea, Malagako komisariako etorkinei sutean hiltzea ez zegokien bezala. Euskal presoak gezurretan ari dira halako salaketak egiten dituztenean, eta etorkinak (hilik daukenei gezurretan aritzea leporatzea gogorregia denez) euren erruz hil ziren, ez baitago jakiterik etorkin hauek zer egingo duten!